



MURUETAKO UDALA

Lehenik eta behin, eskerrik asko bihotz bihotzez muruetar denei egiten ari zareten esfortzuarengatik. Horrela jarraitu behar dugu.

Egoera larri baten aurrean gaude, baina lasaitasunez eta arduraz jokatu behar dugu, etxean geratuz eta agintarien jarraibideak betez.

Muruetako Udaletik neurriak hartu ditugu: Frontoia, Eskola, Aldai Etxea, Udalbarri Aretoa eta zabuak itxi ditugu, eta Muruetako Udalak antolatzen dituen ekintza guztiak bertan behera gelditzen dira.

Jakin dezazuen ere, herriko edukiontziak desinfektatzen gabilta.

Muruetako kontsultategia ere itxita dago, horregatik kontsulta telefonikoak mantendu eta indartuko dira. Kontsulta presentziala behar izanez gero, bai helduak eta bai pediatrikoak, Gernikako Ospitaleko lehenengo solairuan atendituko dira.

Muruetako Udala zuen esanetara dago, eta COVID-19 pandemia honek iraun bitartean, jedaurreko arreta telefonoz edo posta elektronikoz egingo da. Ezer behar izanez gero, jarri gurekin kontaktuan. Laguntzeko gaude.

Muruetak, zuen denon laguntza behar du egoera honi aurre egiteko. Eta seguru nago izango duena, Muruetaren indarra, elkartasuna, lankidetzeta eta solidaritatea direlako.

Denongan pentsatu behar dugu, bakoitzaren erabakiek, denongan eragina dutelako.

Mesedez, lehen esan dudan moduan, lasaitasunez eta arduraz jokatu dezagun, etxean geratuz eta agintarien jarraibideak betez.

Denon artean, lortuko dugu.

Aurrera.

Eskerrik asko.

Muruetan, 2020ko martxoaren 23an.

Julen Karrion Lamikiz
Muruetako Alkatea

